



JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAN LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN INGURUKO GOGOETAK

Gaur baino lehen ere agerian jarri izan dugu laneko arriskuetan prebenitze eskasa dugula. Gai horretan, EAEn, garatze-maila lekutan geratzen da inguruko herrialdeenetatik.

20 urte igaro dira Laneko Arriskuen Prebentzioko Legetik. Bada, denboraldi horretan, hainbat eta hainbat erregelamendu eta zuzentarau eman dituzte argitara esandako lege hori garatzeko asmoz. Araudi-zerrendaren luzea itzela da. Dena den, prebentziorako oinarri-oinarrizkoak diren kontuak sistemaz ez dira betetzen. Horretan ere EAEko Administrazioa ez da salbuespena.

ADMINISTRAZIOAK EZ DITU LEGEAK BETETZEN...

Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordeko bileretan, behin eta berriz gogorarazten diogu prebentzio delegatuok Justizia Administrazioko Zuzendaritzari kontu ugari ez dituela konpontzen edo ez egoki heltzen diela:

- Oro har, eraikin judizialek hainbat akats daukate ingurumen baldintzei dagokienez; hala ere, leku batzuetan larriagoa da egoera (esaterako, Durango, Azpeitia, Tolosa, Buenos Aires...).
- Zenbaitetan, langileak estu-estu kokatu dituzte okupatu gabeko tokiak egon arren, adibidez, Donostiako Zigor-arloko BIBO.
- Artxiboetan paperek gainezka egitearen ondorioz, segurtasun arazoak daude (zoruek gehiegizko kargak jasan behar dituzte; kaxak eta bultuak pasabideetan, leku garaietan edota beste funtzioa duten esparruetan uzten dira, adibidez, erabilera anitzeko geletan; artxibatze eta desartxibatzerakoan jarrera okerrak egin behar izatea...)
- Material ergonomikoa urri ematen dute (garraiorako gurdiak, grapagailu elektrikoak...), ezta osasunaren zaintzarako zerbitzuaren gomendioz ere; lesio muskuloeskeletikoak gutxitze aldera prestakuntza ez da egokia.
- Osasuna zaintzeko ia neurri bakarra azterketa medikoak egitea da; gainera, gehienetan, ez dute lotura zuzena norberaren lanpostuaarekin.
- Ikerketa epidemiologikorako baliabiderik ez dute jartzen.
- Araubideak urratzen dituzte honako hauek egitean eta berrikustean: larrialdi- eta ebakuazio-egitasmoetan (arrisku handiko lekuetan barne, Patologia forense

Zerbitzuan esaterako ez daukagu ebakuazio-planik); lan arriskuen ebaluazioak aspaldi-aspaldian egin ziren eta ez dituzte errebisatu. Errebisatu dituzten kasuetan, hala ere, ez da egiten lanpostuz lanpostu, oso modu orokorrean baizik; arrisku psikosozialen ebaluazio gutxi eta hala-moduz egin dira...

- Neurri artezleak ez dira behar bezala jagoten, esan ohi dutenaren arabera, parte hartu behar duten zerbitzuen arteko koordinazio eskasagatik (mantentze-zerbitzua, EAT, obretako zerbitzua, JAZ, prebentzio zerbitzua...).
- Berehala egin behar den arrisku psikosozialen ebaluazio batean (Bilboko Instrukzioa), Justizia Administrazioako Zuzendaritzak langileen ordezkariaren zati bat kanpoan utzi nahi du (bi prebentzio delegatu besterik ez dituzte nahi onartu, 5 sindikatu garen arren) lantalde zaluak osatzeko aitzakiapean.

Eta hori guztia gutxi balitz, prebentzio zerbitzua beharrezkoa den mailaren azpian hornituta dago eta ezin ditu dagozkion zeregin guztiak bete. 2012. urtearen erditik hona arduradun lanpostuan ez dago inor. Harrezkeroztik azalpen bakarra daukate: plaza betetzeko prozedura abian dago. Benetan gertatzen ari dena da A kategoriako lanpostu baten kostua aurrezten dutela eta eurek onartutako Prebentzio Plana ez betetzen.

...BAINA EZ DIO ARDURA

Prebentzio ordezkariok geratzen zaigun azken baliabide baketsua Lan Ikuskaritzan salaketa jartzea da. Aspaldi-aspaldian konturatu ginen instantzia horretan erregistratutako salaketek ez dutela aurrera egiten. Hein batean, Lan Ikuskaritzak ere langile falta duelako. Izan ere, inspezio kontuetan izandako eskumen transferentzia berri samarrak (2011ko ekaina) ez du onurarik ekarri zerbitzura.

Espedienteek hilabeteetan, baita urteetan ere, tiraderan sartuta ematen dute zeren zain ez dagikula. Baina, jakina, nork ikustatu behar du ikuskaritza?

Bada, administrazioak urratu ohi du Laneko Arriskuen Prebentzioko Legea; dena den, hortik arazorik etorri dakioken beldurrik ez du, ez bada errekerimenduren bat eta ez oso zorrotza, hori onenean.

Hortaz, zertarako dirurik gastatu baliabide pertsonaletan eta materialetan langileen segurtasuna eta osasuna prebenitzeko? Zeinbait irudi kanpainekin iritzi publikoari transmititzen bazaio interesatzen den mezua: geu gara hobetoen kudeatzen duen gobernu taldea.

Aitortzea triste bada ere, oso jokabide arrunta da administrazio zein politikaren esparruetan: propagandak errealitatea ordezkatzeko du.

Honaino errebaso orokorra Justizia Administrazioan prebentzio kontuak zelan dauden ikustarazteko.

Eta jarraian kasu jakin batekin gatozkizue, zein kudeatzaile motaren eskuetan gauden erakusten duen kasua, hain justu.

OSASUNA ERE MURRIZTEN DIGUTE!

JUSTIZIA SAILBURUORDETZA BERE LEKUAN JARTZEN DUTE AUZITEGIEK

Lantokian gertatutako istripu batean, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak lan istripua zela ukatu ostean, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiak arrazoia eman zion langileari.

Oso larria da auzietara jo behar izatea egiaztatzeko lanpostuko ingurumen-baldintzek osasuna kentzen diotela norberari.

Prebentzio Zerbitzuak egindako txostenak lan-istripuztat jotzen bazuen ere, JAZ gertakizun arruntzat zela tematu zen, funtzionarioak duen gaixotasunak eragindakoa omen.

Hainbat bulego judizialetan emandako hogeita hamar urteetan lankide honi sekula ez zitzaion horrelakorik gertatu. Heldu berria zen lanpostuan lehenengo egunetik hasita izan zituen bulegoaren giro kaltegarriak sorturiko arazoak; eta astebete baino lehen gaixotasun agiria eman behar izan zioten.

Administrazioaren jokaera zitala da: ez dira konformatzen gertakari arrunteko Laneko Ezintasun Iragankor (LEI) kasuetan deskontuak egitearekin, lan-gertakariei ere etekina nahi diete atera (horietan ordainsariaren % 100 kobratzen dugu). Horretarako erabiltzen duten formula hau da: istripuari lan izaera ez aitortzea; eta langile askok eta askok ez dutenez auzitegietaraino segituko, bada, diru hori poltsikora.

Aurreko murrizketekin nahikorik ez (izozteak, lansaritik deskontuak, apartekoa ostu, opor-egun gutxiago, norberaren kontuetarako egun gutxiago, LEI egoeran egoteagatik zigorrak...), osasuna ere murriztu behar digute. Baldintza osasuntsuak dituzten bulegoak antolatzekeo baliabideak ez dituzte jartzen eta, gainera, langilea errudun jo eta zigortzen dute!

2015-10-08